

| AUTOMOBILA

gida
lasterra



LAGUN ARO

4

Lapurreta egin badizute

Nola jokatu ezbeharra gertatuz gero?

Autoa lapurtzen badizute, egin behar duzun lehen gauza hurbilen duzun polizia-etxean **salaketa** jartzea da.

Zehaztu salaketan bertan Lagun Aro dela ibilgailuaren erakunde aseguratzailea. Eskatu **salaketaren kopia** bat.

Zure polizak lapurreta estaltzen badu, deitu 944 94 74 28 telefonora, ezbeharren parte emateko.

Zure ibilgailua agertuko balitz, hori izaten da normalena, gure gain hartuko ditugu hirugarrenen esku egon den bitartean ibilgailuak izan dituen kalte guztiak.

Ibilgailua agertuko ez balitz, ibilgailuaren antzintasunaren arabeko kalte-ordaina emango dizugu.

